*INDESA 2010 SL*

***2020KO EKITALDIAREN TXOSTENA***

## *1. OHARRA- SOZIETATEAREN JARDUERA*

INDESA 2010 SL sozietatea 2010eko abenduaren 23an eratu zen denbora mugagaberako, eta 2011ko urtarrilaren 1ean hasi ziren haren jarduerak.

Gasteizko Álava jenerala kaleko 10. zenbakiko 5. solairuan du egun sozietateak egoitza soziala.

Haren helburu soziala hau da:

*"Kalitateko lan aukerak eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik iraunkorrak direnak sortzea Arabako pertsona desgaituentzat, laneratzea eta gizarteratzea lortzeko, betiere, enplegu zentro berezi gisa.*

*Sozietateak desgaitasunen bat duten pertsonek ohiko enpleguren bat eskura dezaten sustatuko du, eta, horri begira, egungo edo etorkizuneko legeriak horrexetarako bideratzen duen edozein jarduera sustatuko du, bai eta pertsonentzako, gizartearentzako edo, oro har, industriarentzako zerbitzu jarduerak ere, batere mugarik gabe –helburu sozialean aipatutakoak izan ezik–, betiere desgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegu bitartekotzat baliatu ahal badira. Bestalde, lankidetzan jardungo du enplegurako zerbitzu publikoekin, desgaitasunen bat duten pertsonak lanerako gaitu eta bideratzearren, eta bitartekari lanetan arituko da lanerako zailtasun handiak dituzten taldeei lana lortzeko, dela babestutako lanetan, dela ohiko lanetan.*

*Sozietateak estatutuetan jasotako araubide juridikoaren arabera egin beharko ditu bere helburua osatzen duten jarduerak, aurreko artikuluan aipaturiko herri administrazioek edo botere esleitzaileek agintzen dizkioten neurrian, haien berezko bitarteko instrumentala eta zerbitzu teknikoa den aldetik. Jarduera hauexek osatzen dute sozietatearen helburua:*

- *Pertsonentzako zerbitzuak: Egoitzetan garbiketa egin, arropa garbitu eta otorduak prestatzeko zerbitzua, eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera.*
- *Gizartearentzako zerbitzuak: Eraikinak garbitzea, industria edo ospitaleetako arropa garbitzea, berdeguneak mantentzea, sukaldaritza eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera.*
- *Industriarako zerbitzuak, oro har: Jarduera espezializatuak edo industriak berezko dituenak, izan ekoizpen prozesuaren parte, edo izan jarduera edo zerbitzu lagungarri, baina beharrezkoak direnak industria jarduera osorik gauzatzeko. (Manipulatuak, mekanizatuak, muntaketak, salgaien erosketa, logistika, administrazioa, bilgarriak eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera).*

*Beharrezko zentro eta instalazioak dauzka jarduerok garatzeko.*

*Egun gauzatzen dituen egitekoak berez dagozkio helburu sozialari.*

*Sozietateak berak zuzenean edo zuzenbideak onartzen dituen moduetako beste edozeinetan gauzatu ahal izango ditu jarduera horiek, hala nola helburu bera edo antzekoa duten beste erakunde batzuetan bazkide gisa parte hartuz.*

*Sozietatearen xedetik kanpo geratzen dira sozietateak betetzen ez dituen eta legeak eskatzen dituen betekizun bereziak eskatzen dituzten jarduera guztiak".*

Sozietatea Arabako Lurralde Historikoko enplegu zentro berezi gisa kalifikatuta dago eta foru administrazioaren zati da. Bitarteko propio instrumentaltzat eta zerbitzu teknikotzat jotzen dute sozietatea Arabako Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Eusko Legebiltzarrak eta hala erabakitzen duten udalerrietako Toki Administrazioak, bai eta Sektore Publikoko araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 86. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 4., 6.3., 31. eta 32. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako botere esleitzaile diren erakundeekin lotutako erakunde, organismo eta entitateek ere.

Bestalde, 2018ko martxoaren 9an, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea sartu zen indarrean. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Lege horretan, Administrazioaren "bitarteko propioa" deritzonaren, kudeaketa esleipenen edo "in house" izeneko teknikaren aplikazio praktikoaren erregulazio berri bat ezartzen da; orain, "baliabide propioei egindako enkarguak" deituko zaio, eta erakunde horiek bete beharreko eskakizunak areagotu egin dira, lehia askearen printzipioa kaltetu dezaketen zuzeneko esleipenak saihesteko. Ezarritako eskakizunen artean dago erakunde horiek "bitarteko propio" izaera izatea, egiten zaien enkargua betetzeko baliabide pertsonal eta material egokiak izatea, dagokion botere esleitzailearen baimena jaso izana, enpresa pribatu baten partaidetzarik ez izatea eta merkatuan bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago askatasunez egin ezin izatea (32. artikulua). Indesa 2010 SLk, estatutuen arabera, betetzen ditu Arabako Foru Aldundiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta hala xedatzen duten udalerrietako Toki Administrazioaren bitarteko propiotzat hartua izateko baldintzak.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erabaki zuen Indesa 2010 SLri Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazio ofiziala ematea, eta, ondorioz, irabazteko xederik gabeko erakundea da.

## *2. OHARRA- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK*

### *a) Irudi fidela*

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik lortu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onesten duen 1514/2007 Errege Dekretuan eta kontabilitatearen arloan indarrean dauden gainerako lege xedapenetan jasotako kontabilitate printzipioei eta balorazio irizpideei jarraituz formulatu dira, eta, beraz, ondarearen, finantza egoeraren eta ekitaldiko emaitzen irudi fidela erakusten dute, bai eta ondare garbiaren eta eskudiruaren fluxuen egoera orrian sartutako fluxuen aldaketak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Bazkideen Batzar Orokorrak onartu behar ditu. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla uste da.

2019ko ekitaldiko urteko kontuak 2020ko uztailaren 9an onartu zituzten bazkideek batzar orokorrean.

### *b) Informazioa alderatzea*

Alderatuak izan daitezen aurkezten dira egoera balantzearen, galera-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera orriaren, eskudiruaren fluxuen egoera orriaren eta urteko kontuen memoriaren partida bakoitzeko ekitaldiko zenbatekoez gain, aurreko ekitaldikoak ere. Bi ekitaldietako zenbatekoak antzekoak dira.

Urteko kontuak osatzen dituzten finantza egoerak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkezten dira.

Legez beharturik dago sozietatea ekitaldi honetako kontuak ikuskatzera, eta beharturik egon zen aurreko ekitaldikoak ikuskatzera.

### *c) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren kalkulua*

Sozietateak emaitza positiboak lortu ditu azken bi ekitaldietan, eta bere bazkide nagusi den Arabako Foru Aldundiaren laguntza finantzario garrantzitsua jaso du. Horregatik, ez dago zalantzarik urteko kontuak formulatzean funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa aplikatzearen bidezkotasunari buruz.

Erantsitako urteko kontuetan zuzendaritzak egindako kalkuluak erabili dira noizean behin, aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko. Nahiz eta kalkulu horiek aztertutako gertakariei buruzko kontuak formulatzeko datan eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin ziren, litekeena da hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartuko gaituzten gertaerak jazotzea etorkizunean, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, kalkuluaren aldaketaren ondorioak aitortuz. Kalkuluek, funtsean, honako kontu hauei eragiten diete:

- Aktibo material eta ukiezinen balio bizitza.
- Emandako dirulaguntzak emaitzetan aplikatzea.
- Sortutako ustiapen dirulaguntzen zenbatespena.
- Merkataritza kredituen balioaren narriadura.

***d) <u>Hutsen zuzenketa</u>***

2019ko ekitaldian, Arabako Foru Aldundiak 1.477.777,68 euroko finantza ekarpena egin zuen, sozietateak 2013an ikuztegiaren atalari lotuta erositako ibilgetua (makineria eta instalazioak) finantzatzeko 2012an sinatutako banku maileguak amortizatzeko. Aktiboen eskuratze data eta maileguaren harpidetza kontuan hartuta, dirulaguntzaren aplikazioa emaitzetara doitu zen, eragiketaren jatorri data kontuan hartuta, eta borondatezko erreserbak 466.996,37 eurotan handitu ziren. Gainera, akatsak zuzentzeko beste doikuntza batzuk egin ziren, eta, ondorioz, borondatezko erreserbak 17.633,79 euro murriztu ziren.

Ekitaldi honetan, sozietateak akatsak zuzendu ditu, eta borondatezko erreserben kontua 69.182,41 euro handitu da.

***e) <u>Kontabilitate irizpideen aldaketak</u>***

Oraingo ekitaldian eta aurrekoan ez da aldaketa esanguratsurik izan kontabilitate irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta.

***f) <u>Partidak multzokatzea</u>***

Urteko kontuek ez dute partida multzokaturik balantzean, galera-irabazien kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoera orrian edo eskudiruaren fluxuen egoera orrian.

***g) <u>Hainbat partidatan jasotako elementuak</u>***

Ez dago partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementurik.

***h) <u>Garrantzi erlatiboa</u>***

Finantza egoeren edo beste gai batzuen gaineko partiden memoria honetan xehatu beharreko informazioa zehaztean, sozietateak garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera.

## *3. OHARRA- EMAITZAK APLIKATZEA*

Hona hemen administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorrari emaitzak banatzeko egindako proposamena:

| | Ejercicio 2020 | Ejercicio 2019 |
|---|---|---|
| Base de Reparto | 1.753.360,37 | 887.298,62 |
| - Pérdidas y ganancias | 419.410,67 | 558.120,93 |
| - Aportación de socios | 0,00 | 329.177,69 |
| - Reservas voluntarias | 1.333.949,70 | 0,00 |
| Distribución | 1.753.360,37 | 887.298,62 |
| - Reserva legal | 41.941,07 | 55.812,09 |
| - Reserva de capitalizacion | 1.333.949,70 | 0,00 |
| - Reservas voluntarias | 377.469,60 | 831.486,53 |

Sozietatea Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Berezi gisa kalifikatu da, eta, horregatik, emaitzak sozietatearen helbururako osorik berrinbertitzera behartuta dago, eta, beraz, ezin dira banatu.

Batzar Orokorrari proposatu zaio enpresa kapitalizazioa sustatzeko erreserba xedaezina zuzkitzea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 77/2013 Foru Arauaren 51. artikuluan araututakoaren arabera. Erreserba horren zuzkidura 2019ko ekitaldiari zegokion zergaren kuotatik kendu zen (zuzkiduraren % 10), eta horren aitorpena 2019ko ekitaldiko urteko kontuak onartu zituen bazkideen Ohiko Batzar Orokorraren ondoren aurkeztu zen.

## *4. OHARRA- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK*

Hona hemen ekitaldian aplikatutako erregistro eta balorazio arauak:

### *a) Ibilgetu ukiezina*

Bizitza baliagarri mugatua duten aktibo ukiezinak modu sistematikoan amortizatzen dira, kalkulatu zaien bizitza baliagarriaren arabera eta horien hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da, eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira.

Hasierako azterketaren ostean, honako era honetan balioesten da: kostua ken amortizazio metatua eta, hala badagokio, ken narriadura dela-eta balioan egin beharreko zuzenketa.

Ibilgetu ukiezin bakoitzean aztertu eta zehazten da bizitza baliagarria mugatua edo mugagabea den.

Aplikazio informatikoak eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, eta modu linealean amortizatzen dira, % 10eko ehunekoa aplikatuta.

Sozietateak kontabilitatean jasotzen du aktibo horien balio erregistratuan izandako edozein galera, narriaduratik eratorria, eta galera-irabazien kontuko "Narriaduragatiko galera garbiak" epigrafea erabiltzen du kontrapartida gisa. Ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezinen ondoriozko "narriaduragatiko galera garbirik" kontabilizatu.

Aplikazio informatikoen hornidura 10.862,54 eurokoa izan da 2019ko ekitaldian, eta 15.076,70 eurokoa 2020an.

Álava jenerala kaleko 10. zenbakian dagoen lokala (Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa) doan erabiltzeko eskubidea laga zen eguneko arrazoizko balioan baloratu da. Modu linealean amortizatuko da lagapen epean, hau da, hamar urtean. Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 32.800,19 eurokoa izan da (Araba jenerala 10) eta 1.323,87 eurokoa (Domingo Beltran 2).

***b) Ibilgetu materiala***

Ondasun ibilgetu guztiak enpresaren ekoizpen normalaren zikloan erabiltzen dira edo erabiliko dira. Ez dago aktiborik ez salgai, ez errentan. Beraz, ibilgetu materialaren kontuan sailkatzen dira guztiak.

Eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira, eta, beraz, fakturatutako zenbatekoaz gain (prezioan edozein deskontu edo beherapen kenduta), martxan jarri arte sortzen diren gastu gehigarri eta zuzeneko guztiak eta jasanarazi ezin diren zergak ere hartzen dira kontuan. Horri dagokionez, ibilgetua eskuratzean jasandako balio erantsiaren gaineko zerga ez da kengarria sozietatearentzat, eta ibilgetuaren balioaren zati bat da.

Sozietatea eratzean eta ondorengo kapital zabalkuntzetan erantsitako ibilgetuko elementuak, sozietatearen eratze eskrituraren eta kapital zabalkuntzen ondorioetarako, diruzkoa ez den ekarpen gisa esleitutako zenbatekoan balioesten dira.

Sozietateari erabiltzeko lagatako aktiboak ibilgetu material gisa erregistratzen dira, bete egiten direlako aktibo horiek ibilgetuan erregistratzeko ezarritako baldintzak, lagapen aldia eta erabilera baldintzak kontuan izanda.

Sozietateak ez du konpromisorik aktibo ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko. Horregatik, ez da aktiboan zenbatetsi etorkizuneko obligazio horiek estaltzeko baliorik.

Erakundeak, beraz, erabili, ustiatu edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan sartzen ditu finantzaketa berezi edo orokorrarekin lotutako finantza gastuak, eskuratze, eraikitze edo ekoizteari zuzenean egotz dakizkiokeenak.

Kontabilitate balio garbia balio berreskuragarria baino handiagoa bada, erregistratu egiten da ibilgetu materialaren elementu balioaren narriaduragatiko galera. Balio berreskuragarria da haren arrazoizko balioari salmenta kostuak eta erabilpen balioa kendutakoan ematen duen zenbateko handiena. Ez da gertatu inguruabarrik narriaduragatiko galera erregistratzea ondorio duenik.

Dagokion gastu kontuan jasoko dira sozietateak egindako obrak eta lanak direla-eta ekitaldian zehar gastatutakoak. Ondasunen ekoizpen ahalmena handitzea edo balio bizitza luzatzea eragiten duten handitze edo hobetze kostuak aktiboan txertatzen dira, haren balio handiago gisa.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa, hala, abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, modu linealean balioetsitako bizitza erabilgarrian zehar, hain zuzen. Hala, hondar balioa hutsa izango dela kalkulatzen da. Hona hemen bizitza erabilgarriko urteak:

| Inmovilizado | Coeficiente Anual | Vida Útil |
|---|---|---|
| - Construcciones | 3,33% | 30 |
| - Instalaciones técnicas | 10,00% | 10 |
| - Maquinaria | 10,00% | 10 |
| - Utillaje | 20,00% | 5 |
| - Mobiliario | 10,00% | 10 |
| - Equipos informáticos | 16,60% | 7 |
| - Elementos transporte | 12,50% | 8 |
| - Otro Inmovilizado | 6,66% | 15 |

Amortizatzeko zuzkidura 699.277,72 eurokoa izan zen 2019an, eta 716.402,92 eurokoa 2020an.

***c) Finantza tresnak***

Erakundeak finantza tresnen kapituluan erregistratuta dauzka enpresa batean finantza aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza pasibo bat edo ondare tresna bat sortzen duten kontratuak. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

*Finantza aktiboak:*

- Finantza inbertsioak
- Merkataritza eragiketengatiko kredituak: bezeroak eta hainbat zordun.
- Merkataritzakoak ez diren beste zor batzuk.

*Finantza pasiboak:*

- Merkataritza eragiketengatiko zordunketak: askotariko hornitzaile eta hartzekodunak.
- Kreditu erakundeekiko zorrak.
- Beste finantza pasibo batzuk.

***c.1) Finantza aktiboak***

Finantza aktiboak beren epemugen arabera sailkatzen dira, hau da, bi hilabetean edo arinago amaitzen direnak arruntak dira, eta epe luzeagoa dutenak ez arruntak.

Hasiera batean, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuen baturaren arabera erregistratzen dira finantza aktiboak. Baloraziorako, honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

- Finantza inbertsioak: finantza erakundeetan epe jakin baterako egindako gordailuak. Epemuga heldu arte inbertsio gisa sailkatzen dira.
- Maileguak eta kobratzeko partidak: enpresaren trafiko eragiketengatik ondasunak saltzean edo zerbitzuak ematean sortutako finantza aktiboak, edo merkataritzako jatorririk izan ez arren ondare tresna edo tresna eratorri ez direnak eta zenbateko finko edo zehatzeko kobrantzak dituztenak eta merkatu aktiboan negoziatzen ez direnak. "Merkataritza zordunak eta kobratu beharreko besteko kontu batzuk" epigrafeetan erregistratutako aktiboak dira kategoria hau osatzen duten gehienak.

*Ondorengo balorazioa*

Izan duten amortizazio kostuaren arabera balioesten dira epemugara arte izandako inbertsioak.

Kobratu beharreko mailegu eta partidak honela balioetsiko dira: beren balio nominal edo eskualdaketa prezioa, ken litekeen narriadura prezioa kontuan hartuta.

Ekitaldia amaitzean behintzat, sozietateak narriadurari buruzko testa egiten du, arrazoizko balioarekin erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriadura dagoela ezarri ahalko da, baldin eta finantza aktibotik berreskuratu daitekeen balioa liburuetan duen balioa baino baxuagoa bada. Halakorik gertatzen denean, narriadura hori galera-irabazien kontuan erregistratzen da. Ekitaldian ez zaio zenbatekorik eman bezeroen narriaduragatiko hornidurari.

***c.2) Finantza pasiboak***

Finantza pasibo deitzen zaie sozietateak ordaintzeko dituen eta enpresaren trafiko eragiketen ondoriozko ondasun eta zerbitzuen erosketan sortu diren zor eta partidei edo, merkataritzako jatorririk izan ez arren, finantza tresna deribatu gisa ulertu ezin direnei.

Ordaindu beharreko zor eta partidak jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran, zuzenean egotz daitezkeen transakzioen kostuen bidez egokituta.

Finantza pasiboak beren epemugen arabera sailkatzen dira; hau da, bi hilabetean edo arinago amaitzen direnak pasibo arruntak dira eta epe luzeagoa dutenak ez arruntak.

Sozietateak baja ematen die finantza pasiboei, baldin eta haiek sortu zituzten betebeharrak amaitu badira.

***d) <u>Izakinak</u>***

Sozietatearen jardueretan erabilitako lehengaiak eta materialak eroste prezioaren arabera balioesten dira, eta prezio horretan sartzen dira ordainagiriko prezioa eta BEZ jasanarazi eta ez kengarria. Narriadurarengatiko hornidura funtsa ezartzen da narriadura edo balio galerarik antzematen bada.

***e) <u>Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk</u>***

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korronteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko epemuga zuten.
- Balioa aldatzeko arrisku handirik ez dute.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politika orokorrean sartzen dira.

***f) <u>Mozkinen gaineko zerga</u>***

Sozietateak ekitaldian sortutako zerga erregistratu du, zerga oinarriaren gaineko karga tasa aplikatuta, zeina aurreko ekitaldietako oinarri negatiboek zuzendutako kontabilitate emaitzatik eta eskubidez dagozkion kenkari eta hobarietatik ondorioztatzen baita.

***g) <u>Aktiboen eta pasiboen sailkapena: arruntak eta ez arruntak</u>***

Balantzean, aktiboak eta pasiboak sailkaturik ageri dira, korronte eta ez-korrontetan. Horretarako, aktiboak eta pasiboak arruntak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo horien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebetean egitea espero denean. Aurrekoen bestelakoak dira. Negoziazio helburuarekin eusten zaie, edo eskudiru eta urtebetetik gorako aktibo likidoak dira.

Ustiapen ziklo arrunta urtebetetik beherakoa da.

***h) <u>Bazkideen ekarpenak</u>***

Administrazio Publikoa osatzen duten bazkideek kontraprestaziorik gabe egiten dituzten finantza ekarpenak, sozietateak defizitak edo funtzionamendu gastu orokorrak finantzatzeko egiten dituen jarduerekin lotuta daudenak, ez dira sarreratzat hartzen, eta ondare garbia osatzen duten bazkideen ekarpentzat hartzen dira.

*i) __Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak__*

Kapital dirulaguntzatzat hartzen dira bazkideek ibilgetua zuzenean finantzatzeko, hura finantzatu zuten maileguak amortizatzeko edo hura eskuratzeagatik zorrak kitatzeko egiten dituzten finantza ekarpenak.
Emandako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira, ordaindutako kopuru bera da-eta. Emaitzetan jasotzeko, diruz lagundutakoaren amortizazio prozesura egokitzen da.
Enplegu zentro berezi izateagatik lortutako ustiatze dirulaguntzak galera-irabazien kontuan egindako diru sarrera gisa erregistratzen dira, lortutako zenbatekoa kalkulatuz. Zenbateko hori diruz lagundutako gastu errealean eta dirulaguntzaren oinarri arauetan zehaztutako baldintzetan oinarrituta kalkulatzen da. Kalkulatutako zenbatekoaren eta likidatutakoaren artean ez dago alde handirik.
Dirulaguntzaren araudiak eskatutako baldintza guztiak bete ditu sozietateak; beraz, ez dago itzuli behar izateko arriskurik.

*j) __Balio erantsiaren gaineko zerga__*

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 1/2015 Zerga Premiazko Dekretuaren arabera, ez daude zergaren mende sektore publikoko erakunde, organismo eta entitateek bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguen bidez emandako zerbitzuak, baldin eta administrazio publiko esleitzailearen bitarteko propio instrumentala badira. Dekretua indarrean jarri zenetik, xedapen horrek sozietateari eragiten dio; beraz, aplikagarria da hainbanaketa erregela, ondasun eta zerbitzu eskuratze arrunten eta inbertsioen balio erantsiaren gaineko zergan jasandako kuoten kenkaria aplikatzeko.

Ondorioz, inbertsioek eta ondasun eta zerbitzuen eskuratze arruntek berekin eraman behar dute sozietateak jasan duen eta kengarri ez duen BEZaren zenbatekoa.

*k) __Diru sarrerak eta gastuak__*

Diru sarrerak eta gastuak sortzapen printzipioarekin bat etorriz erregistratzen dira. Hau da, ordezkatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen korronte erreala gertatzen denean erregistratzen dira diru sarrerak eta gastuak, haietatik eratortzen den diru edo finantza korrontea gorabehera.

Ustiatze diru-sarrerak daudela onartzen da sozietateak jaso eta era fidagarrian balioetsi ahal dituenean eskualdaketaren ondorio diren etekin edo mozkinak eta diru sarreren zenbatekoa eta kostuak –eragindako kostuak nahiz eragingo direnak–. Jasotako edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioa duten diru sarrerak, ken beherapenak, prezio urritzeak eta sozietateak emandako antzeko partidak, bai eta kreditu izendatuetara gehitutako interesak ere. Zeharkako zergak, eragiketak kargatu eta diru-sarreren zati diren hirugarrenei jasanaraz dakizkiekeenak.

*l) __Lotura duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak__*

Eskainitako edo jasotako elementu eta zerbitzuak, eskualdaketa gai direnak, hasierako unean, arrazoizko balioaren arabera kontabilizatzen dira. Balio hori da transakzioak arautzen dituzten hitzarmen, erabaki edo kudeaketa esleipenen erabakietan zehaztutako transakzio balioa. Ezarritako prezioak eta hirugarren independenteekin egindako transakzioetan aplikatutakoak ez dira oso bestelakoak.

*m) __Hornidurak eta kontingentziak__*

Hornidura bat iraganeko gertaeren ondorioz sortutako pasibo bat da, gertakari horien zenbatekoaren edo mugaegunaren inguruan zalantza dagoenean sortzen dena. Egoera balantzearen pasiboan aitortzen dira, jasan beharreko obligazioaren egungo balioa hobeto estimatzeko.
Pasibo kontingenteak ezin dira behar besteko fidagarritasunez ebaluatu, eta gaur egun zalantzagarriak diren egoeren bidez baino ezin dira baieztatu. Kasu honetan, informazioa memorian sartu da, eta kontzeptu horrengatik ez da pasiborik jaso.

*n) <u>Ingurumen izaerako ondare elementuak</u>*

Ingurumen jarduerei lotutako aktiboak eskuratzeko sortutako kostuak ibilgetu inbertsioak dira.

Ingurumenarekin zerikusia duten ordainketak, inbertsioez bestekoak, ekitaldiko gastu dira.

Ez da espero ingurumen alderdiei darizkien gertakizunak gertatzea.

*5. OHARRA- <u>IBILGETU UKIEZINA</u>*

Hona hemen epigrafea eratzen duten kontuen xehetasuna eta mugimendua:

| Coste | Aplicaciones Informáticas | Cesión de Uso de Activos | Total |
|---|---|---|---|
| **Saldo Final (31.12.2018)** | **104.700,36** | **32.511,82** | **137.212,18** |
| - Altas | 0,00 | 47.991,12 | 47.991,12 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Saldo Final (31.12.2019)** | **104.700,36** | **80.502,94** | **185.203,30** |
| - Altas | 31.578,19 | 476.943,49 | 508.521,68 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | -32.511,82 | -32.511,82 |
| **Saldo Final (31.12.2020)** | **136.278,55** | **524.934,61** | **661.213,16** |

| Amortización Acumulada | Aplicaciones Informáticas | Cesión de Uso de Activos | Total |
|---|---|---|---|
| **Saldo Final (31.12.2018)** | **-29.721,02** | **-9.563,37** | **-39.284,39** |
| - Altas | -10.862,54 | -3.311,37 | -14.173,91 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Saldo Final (31.12.2019)** | **-40.583,56** | **-12.874,74** | **-53.458,30** |
| - Altas | -15.076,70 | -34.124,06 | -49.200,76 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 14.075,03 | 14.075,03 |
| **Saldo Final (31.12.2020)** | **-55.660,26** | **-32.923,77** | **-88.584,03** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **SALDO NETO** | **80.618,29** | **492.010,84** | **572.629,13** |

Arabako Foru Aldundiak sozietateari doan laga dizkio Álava jenerala kaleko 10. zenbakiko 5. solairuan dauzkan lokalak eta eraikin berean dagoen aparkalekua, hamar urterako gehienez, bertan kokatu ahal izan ditzan bere zerbitzu zentral guztiak edo horietako batzuk. Lagapenaren kontabilitate balioa 475.357,38 eurokoa izan da.

Aldi berean, iraungi egin da Arabako Foru Aldundiaren jabetzakoa den Tomas Zumarraga Dohatsua kaleko 18. zenbakian eta Domingo Beltrán kaleko 2. zenbakian dagoen lokalaren doako erabileraren lagapena.

## *6. OHARRA- IBILGETU MATERIALA*

Hona hemen ibilgetu materiala eratzen duten partiden xehetasuna eta mugimenduak:

| Coste | Terrenos | Construcc. | Maquinaria | Otras Instalac. | Mobiliario | Equipos procesos Información | Elementos Transporte | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Saldo Final (31.12.18)** | **108.286,73** | **8.310.479,35** | **4.341.835,50** | **464.399,47** | **212.596,57** | **72.019,30** | **205.911,00** | **13.715.527,92** |
| - Aumentos | 0,00 | 7.192,00 | 57.284,71 | 50.905,27 | 26.236,64 | 10.493,45 | 271,75 | 152.383,82 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | -4.796,35 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | -4.796,35 |
| **Saldo Final (31.12.19)** | **108.286,73** | **8.317.671,35** | **4.394.323,86** | **515.304,74** | **238.833,21** | **82.512,75** | **206.182,75** | **13.863.115,39** |
| - Aumentos | 0,00 | 2.231,51 | 42.027,48 | 13.424,43 | 23.333,09 | 12.673,06 | 11.631,49 | 105.321,06 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | 0,00 | -6.419,82 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | -6.419,82 |
| **Saldo Final (31.12.20)** | **108.286,73** | **8.319.902,86** | **4.436.351,34** | **522.309,35** | **262.166,30** | **95.185,81** | **217.814,24** | **13.962.016,63** |

| Amortización | Terrenos | Construcc. | Maquinaria | Otras Instalac. | Mobiliario | Equipos procesos Información | Elementos Transporte | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Saldo Final (31.12.18)** | **0,00** | **-1.847.738,86** | **-1.566.271,29** | **-267.130,21** | **-99.589,70** | **-26.930,44** | **-106.070,70** | **-3.913.731,20** |
| - Aumentos | 0,00 | -276.921,87 | -294.890,19 | -53.341,59 | -35.090,03 | -13.839,42 | -25.194,62 | -699.277,72 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | 3.875,56 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 3.875,56 |
| **Saldo Final (31.12.19)** | **0,00** | **-2.124.660,73** | **-1.857.285,92** | **-320.471,80** | **-134.679,73** | **-40.769,86** | **-131.265,32** | **-4.609.133,36** |
| - Aumentos | | -277.175,81 | -302.124,56 | -62.971,65 | -40.253,75 | -14.928,09 | -18.949,06 | -716.402,92 |
| - Bajas o traspasos | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| **Saldo Final (31.12.20)** | **0,00** | **-2.401.836,54** | **-2.159.410,48** | **-383.443,45** | **-174.933,48** | **-55.697,95** | **-150.214,38** | **-5.325.536,28** |
| | | | | | | | | |
| **TOTAL NETO** | **108.286,73** | **5.918.066,32** | **2.276.940,86** | **138.865,90** | **87.232,82** | **39.487,86** | **67.599,86** | **8.636.480,35** |

- Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, erabiltzen ari dira eta ez daukate zama edo kargarik. Horrez gain, ez dago inguruabarrik ibilgetu material diren ondasunen erabilgarritasunari eragiten dionik.

- Ibilgetuko elementuak honako eragiketa hauen bidez txertatu dira:

  - Lursailak eta eraikinak, 4.383.427,91 euro egiten dutenak, diruzkoa ez den ekarpen gisa, 2010ean, sozietatea eratzean, Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzak ordaintzeko.
  - Hainbat zentrotan kokatutako ondasun higigarriak, 526.461,00 euro egiten dutenak, diruzkoa ez den ekarpen gisa, 2011n adostutako eta 2012ko ekitaldian erregistratutako kapital zabalkuntzan Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzak ordaintzeko **.**
  - Eraikinak, 3.938.100,00 euro egiten dutenak, diruzkoa ez den ekarpen gisa, 2013an onarturiko kapital zabalkuntzan Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzak ordaintzeko. Gasteizko Lermandabide kaleko 1ean dagoen eraikinari buruz ari gara, zeina garbitegi industrial gisa erabiltzen baita eta UE 426 zenbakiarekin inbentariatuta baitago Arabako Foru Aldundiaren ondasun eta eskubideen inbentarioan. Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari lagatako lurzati baten gainean eraikia dago, eta lagapen eskritura egin zenetik azaleraz laurogeita hemeretzi urtez gozatzeko eskubidea dauka Aldundiak. Aldundiak eraikina erabiltzeko eskubidea laga dio sozietateari 3.938.116,52 eurotan, diruzkoa ez den ekarpen gisa, sozietatearen kapital zabalkuntzan Arabako Foru Aldundiak harpidetutako partaidetzen ordainketa gisa. Zein epetarako eman zion Gasteizko Udalak Arabako Foru Aldundiari azalera eskubidea –eraikina eraiki zen bere jabetzako lurzatiaren gainekoa–, epe hori bera izango du eraikinaren lagapenak.
    Lagapen egoerari eta iraupenari erreparatuz, ibilgetu materialaren kontuetan erregistratu da aktiboa.
  - Gainerako elementuak sozietateak berak eskuratu ditu, eta zatirik esanguratsuena industria garbiketako lantegirako instalazio berriei dagokie.

- Guztiz amortizatutako elementuen zenbatekoa 87.316,96 eurokoa zen 2019ko abenduaren 31n, eta 175.068,30 eurokoa 2020ko abenduaren 31n.

- Arabako Foru Aldundiak itzuli beharrik gabeko 200.000,00 euroko dirulaguntza eman zuen aurreko ekitaldietan. Diru horrekin finantzatu nahi ziren Jundizko industrialdeko garbiketa industrialeko lantegi gisa erabiltzeko eraikineko instalazioak egokitzeko lanak. 2019an, Arabako Foru Aldundiak 1.477.777,68 euroko finantza ekarpena egin zuen, sozietateak ikuztegi industrialaren atalerako erositako makineria eta instalazioak finantzatzeko 2012an sinatutako banku maileguak amortizatzeko.

- Sozietateak kontratatu duen aseguru polizak behar bezala estaltzen du ibilgetuko ondasunen balioa.

## *7. OHARRA- FINANTZA TRESNAK*

### *7.a) Finantza aktiboak*

Hona hemen finantza aktiboen osagaiak 2019ko abenduaren 31n eta 2020ko abenduaren 31n:

| Activos Financieros a Largo Plazo | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Fianzas | 4.478,25 | 3.503,00 |
| - Otras participaciones | 11.852,48 | 11.852,48 |
| **TOTAL** | **16.330,73** | **15.355,48** |

| Activos Financieros a Corto Plazo | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar | 4.306.531,34 | 3.715.732,07 |
| - Inversiones financieras a corto plazo | 0,00 | 300,00 |
| **TOTAL** | **4.306.531,34** | **3.716.032,07** |

***Beste partaidetza batzuk***

2013ko urtarrilaren 23an, Arabako Foru Aldundiak Indesa 2010 SLri laga zizkion Garaia S. Koop. entitatean zeuzkan partaidetzak, guztira 11.852,48 euro.

***Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk***

Hona hemen epigrafearen osagaiak 2019ko abenduaren 31n eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 1.702.040,20 | 1.850.715,47 |
| - Personal | 0,00 | 1.448,80 |
| - Administraciones Publicas | 2.604.491,14 | 1.863.567,80 |
| **TOTAL** | **4.306.531,34** | **3.715.732,07** |

- Bezeroen saldoa honako kontzeptu hauek eratzen zuten:

| | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 1.129.720,64 | 1.277.821,49 |
| - Clientes empresas del grupo | 572.548,86 | 572.893,98 |
| **TOTAL** | **1.702.269,50** | **1.850.715,47** |

Bezeroen saldo guztiak eurotan azaltzen dira. Haien guztien epemuga urtebetetik beherakoa da, ekitaldia ixten denetik aurrera.

- Taldearen enpresen eta bezeroen saldoaren barruan biltzen dira sozietateak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin zituen saldoak, merkataritza eragiketetan jatorri zutenak, eta, zehazkiago, bitarteko propioa izateagatik jasotako enkarguetan. Gainera, bitarteko propio izateagatik jasotako enkarguengatik 711.916,57 euroko saldoak ditu beste erakunde batzuekin.

- "Administrazio publikoak" partidako saldo zordunak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emateke dituen dirulaguntzak hartzen ditu kontuan, guztira 2.493.003,43 euroko zenbatekoa egiten dutenak, eta kontuan hartzen du, halaber, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko saldo zorduna, 111.487,71 eurokoa.

***Finantza aktiboen kategoriak***

Hauxe da finantza aktiboen sailkapena kategoriaren arabera eta beste enpresa batzuetako partaidetzak kontuan hartu gabe:

| | 31/12/2020 | | | | 31/12/2019 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Largo Plazo | Corto Plazo | | Total | Largo Plazo | Corto Plazo | | Total |
| | Créditos, derivados y otros | Valores rep. Deuda | Créditos, derivados y otros | | Créditos, derivados y otros | Valores rep. Deuda | Créditos, derivados y otros | |
| - Préstamos y partidas a cobrar | 4.478,25 | 0,00 | 4.306.531,34 | 4.311.009,59 | 3.503,00 | 0,00 | 3.716.032,07 | 3.719.535,07 |
| **Total Inversión** | **4.478,25** | **0,00** | **4.306.531,34** | **4.311.009,59** | **3.503,00** | **0,00** | **3.716.032,07** | **3.719.535,07** |

***7.b) Finantza pasiboak***

Hona hemen finantza pasiboaren osagaiak 2019ko abenduaren 31n eta 2020ko abenduaren 31n:

| Pasivos Financieros No Corrientes | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Otros pasivos financieros | 16.264,96 | 16.264,96 |
| **TOTAL** | **16.264,96** | **16.264,96** |

| Pasivos Financieros Corrientes | 31/12/2020 | 31/12/2019 |
|---|---|---|
| - Otras Deudas | -1.008,36 | -247,60 |
| - Deudas con empresas del grupo | 135.121,84 | 679.122,97 |
| - Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar | 1.059.784,11 | 1.190.635,63 |
| **TOTAL** | **1.193.897,59** | **1.869.511,00** |

***Zorrak taldeko enpresekin***

Sozietateak 135.121,84 euroko kontu finantzario hartzekoduna zuen Arabako Foru Aldundiarekin, aipatutako erakundeko langileek sozietateari 2020an emandako zerbitzuengatik.

***Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk***

